Hala ere, alde horren garrantzia benetan kontuan hartzekoa da. Euskadin, oro har, ez gainzorpertzeko, gazte baten soldatak % 75,5 handiagoa izan beharko luke gaur egungoak baino. 2007an, adierazle horren balioa % 229,7 izan zen.

Esparru horretan, lurralde historikoen arteko heterogeneotasuna oso nabarmena da, eta horrek hiru lurraldeen artean etxebizitza librearen prezioan dauden desberdintasunak adierazten ditu: Araban, % 38,3ko soldata-igoera beharko litzateke; Bizkaian, % 66,0koa; eta Gipuzkoan, berriz, % 106,4koa (hau da, bikoiztu egin beharko litzateke).

5. Etxebizitza librea erosteko gehieneko azalera onargarria eta

6. Jabetzako etxebizitza librearen batez besteko azalerarekiko aldea

Euskadin 2017an eskrituratutako etxebizitzaren m²-ko kostua kontuan hartuta, gazte batek, hipoteka ordaintzeko soldataren % 30 erabiliz gero, 50,6 m²-ko etxebizitza erosi ahal izango luke.

2007tik izandako daturik onena da, baina 2017an eskrituratutako etxebizitzaren batez besteko tamaina eta gehieneko tamaina onargarria alderatuz gero, alde handia dago oraindik ere: 40,8 m² Euskadin, eta 43,0 m² Espainian.

Soldata txikiak dituzten bi kolektiboentzat (18-24 urteko pertsonak eta emakume gazteak) alde hori 59,4 m²-koa eta 45,9 m²-koa da, hurrenez hurren.

7. Etxebizitza librea alokatzearen kostua

Praktikan, erosteko edo alokatzeko erabakia ez da baldintza-berdintasuneko ingurune batean hartzen, zenbait elementuk eragiten baitute erabaki horretan: eskuragarri dauden etxebizitzaren kopurua, etxebizitzaren kokapena, kontserbazio-egoera, erabakia hartzeari dagokion denbora-tartea, eta, noski, modalitate baterako edo besterako bete behar diren aurretiko baldintzak. Hileko kuotari dagokionez, etxebizitza libre bat erosteko aukera 2007an edo 2008an bezain garestia ez bada ere, eta kuota hori hileko alokairu baten zenbatekoa baino txikiagoa bada ere (halaxe gertatzen da gaur egun Euskadin eta Espainian), gazte gehienek ezin dute etxebizitza libre bat erosi, faktore hauengatik: batetik, hipoteka bidezko finantzaketarik gabe, ez dute etxebizitzaren prezio osoa edo haren zati bat ordaintzeko behar adina aurrezkeria, eta bestetik, lan-egoerak ez die aukerarik ematen eskatzen zaizkien egonkortasun-bermeak eta ahalmen ekonomikoa frogatzeko. Besteak beste, hori da familiaren etxetik emantzipatzea lortzen duten gazteek etxebizitza edukitzeko alokairura jotzearen arrazoietakoa bat, aukera hori gero eta gehiago baliatzen ari baitira, etxebizitza jabetzan eskuratzeko aukera baino. Badaude etxebizitza erosten duten gazteak, baina gutxiengoa dira eta haien ezaugarri sozioekonomikoek ez dute zerikusi handirik adin bereko biztanleriaren ezaugarri sozioekonomiko ohikoekin.

Diruari dagokionez, gazte batentzat, 2017an askoz konplikatuagoa da etxebizitza libre bat alokatzea 2016an baino. Urtebetean, Euskadin, etxebizitza libre bat alokatzeko batez besteko errentak % 7,3 egin du gora, eta Espainian, berriz, % 9,5. 2009tik, ez zen inoiz izan hain goera handirik urte batetik bestera.

18-34 urteko pertsona batek, Euskadin etxebizitza libre baten alokairua bere gain hartzeko, soldata garbiaren % 69,3 erabili beharko luke. Zenbateko hori higiezinen azken boomaren azkenaldian (2007-2008) izandako kopuruen pare dago. Etxebizitza erosteko baldintzekin gertatzen den bezala, gazteentzat, Gipuzkoan dago urrunen etxebizitza alokatzeko aukera, soldataren % 76,3 behar baita.

8. Etxebizitza librea alokatzeko gehieneko errenta onargarria eta

9. Merkatuko alokairu-errentarekiko aldea

Soldatek eta alokairuen prezioek denboran egin duten ibilbide desberdina dela eta, handitu egin da gazteek soldataren % 30 gehienez gordeta ordain zezaketen hileko alokairuaren eta etxebizitzaren benetako alokairu-prezioaren arteko aldea. 2017ko datuak oso adierazgarriak dira: Euskadin, alokairuko etxebizitzak 64,4 euro garestitu dira urtebetean, eta gehieneko errenta onargarria, berriz, 5 euro handitu da, hileko 409 eurora iritsi arte. Beraz, Euskadin, 18-34 urteko pertsona batentzat, merkatuko errentarekiko aldea 476 euro izatetik (2016an) 535 euro izatera pasatu da (2017). Alokairuaren merkatu librearekiko alderik handiena honako hauek izango lukete: 18-24 urteko pertsonak (hilean 686 euro), eta Gipuzkoan bizi diren pertsonak (hilean 624 euro). Izan ere, Gipuzkoan, 18-34 urteko gazteen kolektiboarentzako aldea (624 euro) bi aldiz handiagoa da Araban adin-tarte horretako gazteentzako aldea baino (hilean 300 euro).

10. Etxebizitza libre bat alokatzeko behar den diru-sarreraren igoera

Alokairuaren merkatuan, % 30eko irizpidea ez da hipoteka eskatzean aplikatzen den modu sistematikoan eta kategorikoan aplikatzen, baina irizpide egokia da etxebizitza libre baten alokairua eskuratzeko aukerak aztertzeke (are gehiago, kontuan hartzen badugu diru-sarreraren irregulartasuna ohikoagoa dela gazteen etxeetan besteetan baino, eta, horrez gain, gaur egun egiten diren utzarazpen edo etxegabetzeetatik % 50 baino gehiago errentamendu-kontratuetan egiten direla³).

Gaur egun, Euskadiko 18-34 urteko gazte batek soldata erreala baino % 130,9 handiagoa jaso beharko luke, % 30eko zorpetze optimoaren arau hori betetzeko. Erosteko, berriz, beharko litzatekeen igoera txikiagoa da (% 75,5), eta horrek hipotesi hau berresten du: bizikidetzaren unitate multipertsonalak (bikoteak, etxebizitza partekatua, berralokairuak...) eratzearen bidez egin duela gora alokairuak gazte emantzipatuen artean.

11. Etxebizitza babestu bat jabetzan eskuratzeko kostua

Jabetzapeko etxebizitza babestuen kopurua gero eta txikiagoa da, baita Araban ere. Lurralde horretan, 2013. urtera arte, etxebizitza babestuen salerosketek eskrituratutako salerosketa guztien % 31tik % 51era bitarteko kuota izan zuten. 2017an, ordea, atal horretan izandako ehuneko minimo historikoa izan da berriz ere, Euskadin urte osoan saldu diren etxebizitzetatik % 5,6 soilik izan baitira babestuak. Ehuneko hori gero eta gertuago dago Espainia osoan azken hamarkadetan izan den proportzio txikitik (2017an, % 4,8).

Horregatik, 18-34 urteko pertsona batentzat etxebizitza babestu bat jabetzan eskuratzeko kostua soldata garbiaren % 30eko gehieneko onargarria baino txikiagoa bada ere ia lurralde guztietan (Euskadin, % 29,8; Araban, % 28,2; Bizkaian, % 27,9; Gipuzkoan, % 30,7; eta Espainian, % 25,3), datu horren garrantzia erlatibo da. Etxebizitza mota horren eskaintza urria da, eta horren ondorioz, praktikan, gazte gutxi eskura dezake.

Bestalde, Espainiari dagokionez, egoera askoz muturrekoagoa da; izan ere, azken estatu-planetan (2013-2016 eta 2018-2021), aurretik beste plan batzuetan onartutako mailegu babestuentzat soilik aitortzen da interes-tasen subsidiazioa.

³ <<http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Temas/Estadistica-Judicial/Estudios-e-Informes/Efecto-de-la-Crisis-en-los-organos-judiciales/>>
 [Kontsulta: 2018ko urriaren 3an].

12. Etxebizitza babestu bat alokairuan hartzeko kostua

Etxebizitza babestuen alokairuan, ordea, aukera gehiago dago, Euskadin behintzat. Etxebizitzaren Euskal Behatokiak duela gutxi argitaratutako txosten batean⁴, bi elementu oso adierazgarri nabarmentzen dira: lehenik eta behin, gaur egun alokairu-erregimenean dauden etxebizitza babestuen guztizko kopurua (18.275 etxebizitza) Euskadiko etxebizitza-parke osoaren % 24,5 dela; eta bigarrenik, Etxebiden etxebizitza babestua eskuratzeko eskaeren % 81,9 etxebizitza alokairuan eskuratzeko direla, adinean bereizketarik izan gabe.

Euskadin, etxebizitza libre baten errenta hilean 944 euro da, eta etxebizitza babestu baten alokairu-prezioa, berriz, ia hiru aldiz gutxiago (329 euro). Beraz, azken urtean igoera izan arren, 18-34 urteko pertsonentzat, etxebizitza babestu baten alokairua beren gain hartzeko modukoa izango litzateke. Lurralde historiko guztietan, soldatapeko gazte baten soldata garbiaren % 24 inguru izango litzateke. 18-24 urteko gazteek soilik ezin izango lukete etxebizitza babestu baten alokairuari aurre egin, soldata baliabide bakarra izanez gero.

Laburbilduz,


- Euskadiko etxebizitza libre ez dago 35 urtetik beherako gazteen eskura. Soldatapeko gazteen batez besteko soldata eta etxebizitzaren prezioa kontuan hartuta, gazte batek, bakarrik emantzipatu nahi izanez gero, soldataren erdia baino gehiago erabili beharko luke hipoteka edo alokairua ordaintzeko.
- Etxebizitza libre jabetzan eskuratzeko kostuak zertxobait behera egin du 2017an, 2016koarekin konparatuta, eta txikiena izan da 2007tik. Hala eta guztiz ere, soldatapeko gazte batek bere soldataren % 52,6 erabili behar du hipotekaren hileko ordainketa egiteko.
- Etxebizitza libre alokairuan hartzeko kostua, ordea, gero eta handiagoa da, eta 2017an, gazteen batez besteko soldataren % 69,3 da; hau da, etxebizitza jabetzan eskuratzeko kostua baino hamar puntu gehiago.
- 2017an, Gipuzkoan da etxebizitza libre eskuratzeko kosturik handiena, bai jabetzan, bai alokairuan, eta Araban, berriz, txikiena.
- Euskadiko gazteek Espainiako gazteek baino kostu handiagoak dituzte etxebizitza libre erosteko zein alokatzeko, etxebizitzaren prezioak garestiagoak baitira Euskadin.
- Etxebizitza babestua eskuratzeko kostu onargarriak ditu soldatapeko gazteentzat, alokairu babestuaren arloan, batez ere, baina etxebizitza mota hori urria denez etxebizitza-parkean, gazte gutxi eskura dezakete etxebizitza babestu bat.
- Gizonen eta emakumeen arteko soldata-aldeak direla eta, emakumeek aukera gutxiago dituzte bakarrik emantzipatzeko. Halaber, 25 urtetik beherako soldatapeko gazteek aukera gutxi dituzte; izan ere, etxebizitza babestua alokairuan hartzea ere garestiegia da haientzat.

⁴ Euskadiko 2017. urteko alokairu-politikaren ebaluazio-txostena

Hemen eskura daiteke: <http://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_adm_alquiler2017/eu_ovv_admi/adjuntos/alokairua_2017.pdf> [Kontsulta: 2018ko urriaren 4an].



I.Eranskina



Adierazleak
lortzeko
erabilitako
datuak



1. 18-34 urte bitarteko gazte soldatadunen hileko soldata garbia

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Espainia	
Total 18-34 años	2007	1.286	1.272	1.303	1.265	1.150
	2008	1.394	1.379	1.413	1.371	1.200
	2009	1.399	1.384	1.419	1.377	1.225
	2010	1.424	1.409	1.444	1.401	1.250
	2011	1.411	1.395	1.430	1.388	1.202
	2012	1.390	1.375	1.409	1.402	1.193
	2013	1.365	1.350	1.383	1.343	1.150
	2014	1.372	1.374	1.381	1.356	1.192
	2015	1.325	1.327	1.334	1.354	1.154
	2016	1.347	1.350	1.356	1.332	1.135
	2017	1.363	1.366	1.373	1.347	1.151
Emakumeak 18-34 urte	2007	1.138	1.125	1.153	1.134	1.025
	2008	1.245	1.231	1.262	1.225	1.102
	2009	1.290	1.276	1.308	1.269	1.143
	2010	1.318	1.304	1.337	1.297	1.166
	2011	1.269	1.255	1.287	1.249	1.109
	2012	1.250	1.237	1.268	1.230	1.073
	2013	1.290	1.276	1.308	1.269	1.039
	2014	1.266	1.268	1.275	1.251	1.088
	2015	1.213	1.215	1.221	1.199	1.044
	2016	1.210	1.213	1.219	1.196	1.029
	2017	1.225	1.227	1.233	1.211	1.074
Gizonak 18-34 urte	2007	1.435	1.433	1.454	1.425	1.236
	2008	1.533	1.516	1.539	1.508	1.305
	2009	1.529	1.513	1.550	1.505	1.330
	2010	1.566	1.549	1.587	1.540	1.366
	2011	1.571	1.554	1.592	1.546	1.324
	2012	1.562	1.545	1.583	1.537	1.291
	2013	1.467	1.451	1.487	1.443	1.233
	2014	1.505	1.507	1.515	1.487	1.262
	2015	1.470	1.472	1.480	1.453	1.231
	2016	1.447	1.449	1.457	1.430	1.204
	2017	1.467	1.469	1.477	1.450	1.219
18-24 urte	2007	1.033	1.022	1.021	1.016	890
	2008	1.041	1.030	1.055	1.024	919
	2009	1.022	1.010	1.036	1.005	900
	2010	1.084	1.072	1.078	1.067	945
	2011	960	949	973	944	853
	2012	923	913	936	909	817
	2013	899	889	912	885	784
	2014	938	940	945	928	821
	2015	867	868	873	857	759
	2016	842	844	848	832	743
	2017	860	862	866	850	756

Iturria: guk geuk egina, Estadistika Institutu Nazionalaren Lan Kostuaren Hiruhileroko Inkestako (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Inkestako (SEI), Soldata Egiturari buruzko Urteroko Inkestako (SEUI) eta Bizi-baldintzei buruzko Inkestako (EU-SILC) datuak erabiliz.

...

25-29 urte	2007	1.296	1.282	1.314	1.275	1.138
	2008	1.361	1.347	1.380	1.339	1.183
	2009	1.388	1.373	1.407	1.366	1.226
	2010	1.405	1.390	1.424	1.383	1.229
	2011	1.324	1.309	1.342	1.302	1.163
	2012	1.284	1.270	1.301	1.263	1.112
	2013	1.249	1.236	1.267	1.229	1.069
	2014	1.283	1.285	1.291	1.268	1.109
	2015	1.247	1.249	1.255	1.232	1.091
	2016	1.223	1.226	1.232	1.209	1.079
	2017	1.238	1.240	1.246	1.224	1.094
30-34 urte	2007	1.505	1.489	1.526	1.481	1.309
	2008	1.588	1.570	1.609	1.562	1.372
	2009	1.601	1.584	1.623	1.575	1.376
	2010	1.642	1.624	1.611	1.616	1.396
	2011	1.585	1.567	1.606	1.559	1.359
	2012	1.557	1.540	1.579	1.532	1.352
	2013	1.513	1.496	1.534	1.488	1.302
	2014	1.542	1.544	1.552	1.524	1.339
	2015	1.472	1.475	1.482	1.455	1.300
	2016	1.441	1.443	1.451	1.424	1.283
	2017	1.461	1.463	1.470	1.444	1.299

Iturria: guk geuk egina, Estadistika Institutu Nazionalaren Lan Kostuaren Hiruhileroko Inkestako (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Inkestako (SEI), Soldata Egiturari buruzko Urteroko Inkestako (SEUI) eta Bizi-baldintzei buruzko Inkestako (EU-SILC) datuak erabiliz.

2. Hipoteken interes-tipoak eta amortizazio-epeak

Etxebizitza librea

	Hipoteka-maileguen interes-tipoak	Etxebizitza erosteko kontratatutako hipoteka-kreditu berrien batez besteko iraunaldia (hilabeteak)
2007	% 5,2	336
2008	% 5,9	321
2009	% 3,4	292
2010	% 2,8	301
2011	% 3,4	297
2012	% 3,4	279
2013	% 3,4	269
2014	% 3,0	272
2015	% 2,2	274
2016	% 2,0	277
2017	% 1,9	280

Iturria: Espainiako Bankua eta Jabetzaren, Ondasun Higigarrien eta Merkataritza Ondasunen Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa.

Etxebizitza babestua Euskadin

	Babes publikoko etxebizitza bat erosteko etxebizitzaren prezioaren % 80 gainditzen ez duen hipoteka-maileguen urteko interes-tasa efektiboa	Hipoteka-maileguen amortizazio-epea (hilabeteak)
2007	% 4,6	360
2008	% 5,3	360
2009	% 2,0	360
2010	% 2,0	360
2011	% 3,3	360
2012	% 2,6	360
2013	% 2,3	360
2014	% 2,2	360
2015	% 1,9	360
2016	% 2,1	360
2017	% 1,8	360

Iturria: guk geuk egina, kontuan izanik Etxebidek (Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuak) argitaratutako interes-tasa efektiboak eta amortizazio-epeen kalkulua.

Etxebizitza babestua Espainian

	Mailegu kualifikatuen urteko interes-tasa efektiboa	Hipoteka-maileguen amortizazio-epea (hilabeteak)
2007	4,4%	360
2008	5,1%	360
2009	2,9%	360
2010	2,6%	360
2011	3,3%	360
2012	2,4%	360
2013	1,9%	360
2014	1,8%	360
2015	1,5%	360
2016	1,3%	347
2017	1,6%	337

Iturria: «Herritarren etxebizitza-eskurapena sustatzeko estatu-plana 2005-2008» planeko interes-tasa efektiboak Estatuko Alizkari Ofizialean argitaratuak, guk geuk egina, kontuan hartuta «Etxebizitzarako eta birgaitzerako estatu plana 2009-2012» eta amortizazio-epeen kalkulua. Datu-bilduma berrikusi dugu, honako hau kontuan hartuz: tasa finkoetako hipoteka-maileguk aurreikusitako tasa finkoak barne hartzea.

3. Etxebizitza librearen eta etxebizitza babestuaren batez besteko salneurria
(euro/metro karratu eraikiko)

Etxebizitza librea*

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Espainia
2007	3.132	2.480	3.224	3.280	1.940
2008	3.008	2.365	3.103	3.192	1.916
2009	2.796	2.046	2.917	3.048	1.828
2010	2.896	1.949	3.010	3.253	1.786
2011	2.779	2.018	2.959	2.893	1.637
2012	2.532	2.014	2.584	2.738	1.417
2013	2.353	1.753	2.299	2.696	1.301
2014	2.248	1.734	2.173	2.593	1.307
2015	2.198	1.563	2.157	2.503	1.336
2016	2.247	1.564	2.173	2.663	1.375
2017	2.281	1.627	2.162	2.795	1.442

* Barnean sartzen dira pisu berriak eta erabiliak eta familia bakarreko etxebizitzak.
Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

Pisu babestua

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Espainia
2007	1.308	1.408	1.266	1.184	1.160
2008	1.385	1.314	1.153	1.420	1.193
2009	1.424	1.367	851	1.506	1.292
2010	1.430	1.327	1.323	1.785	1.309
2011	1.597	1.522	1.921	1.912	1.389
2012	1.595	1.459	1.761	1.722	1.364
2013	1.615	1.362	1.742	2.091	1.069
2014	1.835	1.553	1.930	1.951	1.114
2015	1.945	1.419	2.058	2.076	1.127
2016	1.861	1.522	1.896	2.082	1.083
2017	1.873	1.567	1.929	2.081	1.082

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

4. Etxebizitza librearen eta etxebizitza babestuaren batez besteko salneurria

Etxebizitza librea*

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Espainia
2007	279.702	262.041	276.411	292.479	190.698
2008	266.429	238.225	266.683	280.464	189.655
2009	247.077	205.915	248.459	267.851	184.373
2010	248.686	184.233	253.342	275.832	183.146
2011	250.341	205.285	256.367	262.178	168.554
2012	223.416	204.526	222.926	233.719	149.949
2013	206.579	176.077	199.999	228.053	138.262
2014	198.636	171.298	191.938	219.398	141.516
2015	196.046	167.086	192.767	210.393	143.589
2016	201.321	153.968	197.167	226.410	147.098
2017	202.534	159.952	192.848	235.442	152.811

* Barnean sartzen dira pisu berriak eta erabiliak eta familia bakarreko etxebizitzak.
Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

Pisu babestua

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Espainia
2007	103.324	114.740	73.407	65.720	99.584
2008	114.457	122.979	66.128	95.496	103.050
2009	118.756	120.397	64.761	97.208	112.034
2010	122.133	119.891	91.746	130.209	114.796
2011	130.830	136.039	138.835	139.785	120.611
2012	131.169	129.358	119.679	124.548	118.893
2013	127.367	112.020	126.856	158.682	95.092
2014	138.710	136.405	134.651	139.559	100.990
2015	149.273	118.336	156.769	142.868	102.018
2016	142.073	127.391	136.434	152.094	97.227
2017	140.556	132.913	132.119	143.108	98.962

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

5. Saldutako etxebizitza libre eta babestuen eraikitako batez besteko azalera (m²-tan)

Etxebizitza libre*

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Espainia
2007	91,7	111,8	87,3	90,4	102,9
2008	90,7	106,0	86,5	90,2	103,8
2009	90,0	105,4	85,8	88,7	105,8
2010	88,1	99,5	85,5	86,4	107,7
2011	93,1	108,8	88,2	93,4	108,1
2012	90,1	104,5	88,0	86,5	109,5
2013	90,5	109,3	88,5	86,4	109,6
2014	91,3	107,9	90,4	86,0	112,3
2015	91,3	115,0	90,6	84,7	111,7
2016	91,7	103,0	92,6	85,9	111,6
2017	91,3	106,1	91,7	84,9	110,6

* Barnean sartzen dira pisu berriak eta erabiliak eta familia bakarreko etxebizitzak.
Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

Pisu babestua

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Espainia
2007	79,0	85,5	72,1	74,0	85,9
2008	82,6	93,1	72,4	75,8	86,4
2009	83,4	88,7	79,7	74,2	86,7
2010	85,4	89,8	75,7	77,1	87,7
2011	81,9	89,9	75,8	77,1	86,9
2012	82,3	89,5	72,4	75,5	87,2
2013	78,9	83,8	75,3	77,1	89,0
2014	75,6	88,1	71,4	73,8	90,7
2015	76,8	84,5	76,7	70,8	90,5
2016	76,4	84,1	73,8	74,7	89,8
2017	75,0	85,2	70,6	71,7	91,5

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

6. Etxebizitza librearen eta babestuaren batez bezteko hileko alokairua

Etxebizitza librea

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Espainia
2007	890	909	875	901	873
2008	969	895	969	1.087	843
2009	875	837	881	941	794
2010	922	828	924	1.005	746
2011	896	831	882	994	700
2012	856	790	866	880	672
2013	825	744	839	822	638
2014	845	729	861	819	615
2015	872	740	880	912	630
2016	880	774	889	869	656
2017	944	710	956	1.028	718

Iturria: Higiezin Eskaintzari buruzko Inkesta, Etxebizitzaren Euskal Behatokiarena, eta guk geuk egina Fotocasa.es higiezin atariko Espainiako alokairuko etxebizitzaren txosteneko datuak eta Estatistikako Institutu Nazionalaren herriarren eta etxebizitzaren erroldako datuak erabiliz.


Pisu babestua

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa*	Espainia
2007	194	194	194	194	289
2008	234	234	234	234	301
2009	220	220	220	220	334
2010	204	204	204	204	334
2011	279	279	279	279	334
2012	345	345	345	345	334
2013	333	333	333	333	354
2014	326	326	326	326	354
2015	345	345	345	345	354
2016	268	268	268	268	354
2017	329	329	329	329	354

* Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren Higiezin Eskaintzari buruzko inkestak ez du ematen lurralde historikoen arabera datuak; beraz, lurralde historiko bakoitzean EAEko batez besteko balioa aplikatu da.

EAEko datuen iturria: Higiezin Eskaintzari buruzko Inkesta, Etxebizitzaren Euskal Behatokiarena. Espainiako datuen iturria: Oinarritzko errentaren alokairuko etxebizitza babestuaren batez besteko salneurria (2005-2008ko Plana) eta erregimen orokorrekoa (2009-2012ko Plana); etxebizitzak "gehienezko salneurrikotzat ezarritako eremu geografikoetan" kokatzen direnean legeak aurreikusten duen gehikuntza osagarria kontuan izan barik. Estatuko 2013-2016 Etxebizitza-plana denean, errotazioko etxebizitzaren eta alokairu babestuko etxebizitzaren gehieneko prezioaren batez bestekoa.

II. Eranskina



Testuinguruko
beste datu
batzuk



1. Emantzipazio-tasak

		EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Espainia
Total 18-34 años	2007	40,9	37,6	40,8	42,5	44,4
	2008	41,2	35,7	40,3	45,2	45,2
	2009	42,0	36,3	42,4	44,1	45,9
	2010	43,7	48,3	42,6	43,2	45,8
	2011	45,4	45,9	44,6	46,3	45,5
	2012	44,4	43,5	43,5	46,3	44,6
	2013	43,5	46,6	41,5	45,4	43,7
	2014	43,9	47,1	41,3	46,6	43,1
	2015	40,9	41,0	40,9	40,8	41,6
	2016	38,9	43,6	35,8	41,5	40,3
	2017	37,9	41,5	37,7	36,8	39,3
Emakumeak 18-34 urte	2007	44,5	38,6	44,1	47,5	49,3
	2008	44,4	41,4	43,4	47,7	48,6
	2009	47,1	43,2	46,6	49,8	50,6
	2010	49,1	54,0	48,1	48,3	50,7
	2011	51,0	52,5	50,4	51,4	51,1
	2012	49,0	48,2	48,4	50,4	49,2
	2013	46,7	51,2	44,0	49,2	49,1
	2014	48,5	52,6	45,7	50,8	48,2
	2015	47,0	45,2	47,2	47,5	46,6
	2016	45,9	50,4	42,4	49,3	45,7
	2017	43,8	47,3	43,5	42,9	44,3
Gizonak 18-34 urte	2007	37,5	36,7	37,8	37,4	39,8
	2008	38,1	30,4	37,4	42,8	40,7
	2009	37,2	30,1	38,4	38,5	41,4
	2010	38,6	42,7	37,6	38,0	41,0
	2011	39,9	39,5	39,0	41,6	40,1
	2012	40,0	39,0	38,8	42,4	39,3
	2013	40,3	42,7	39,1	41,3	38,4
	2014	39,4	41,9	37,1	42,1	38,0
	2015	34,8	36,4	35,0	33,6	36,5
	2016	31,8	36,1	29,3	33,9	35,0
	2017	32,1	35,6	31,8	31,1	34,3
18-24 urte	2007	8,2	-	-	-	12,6
	2008	8,6	-	-	-	12,1
	2009	9,5	-	-	-	11,7
	2010	9,0	-	-	-	10,9
	2011	9,4	-	-	-	10,0
	2012	9,4	-	-	-	10,1
	2013	7,0	-	-	-	9,1
	2014	6,0	-	-	-	8,5
	2015	5,5	-	-	-	8,4
	2016	6,7	-	-	-	7,8
	2017	5,7	-	-	-	7,8

...

...

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Espania	
25-29 urte	2007	36,0	-	-	-	45,3
	2008	37,6	-	-	-	46,8
	2009	39,0	-	-	-	46,9
	2010	43,0	-	-	-	46,5
	2011	46,2	-	-	-	46,9
	2012	44,3	-	-	-	45,2
	2013	43,5	-	-	-	45,3
	2014	46,1	-	-	-	44,7
	2015	39,5	-	-	-	42,6
	2016	37,4	-	-	-	41,8
2017	37,5	-	-	-	40,9	
30-34 urte	2007	72,0	-	-	-	73,3
	2008	70,4	-	-	-	73,9
	2009	69,7	-	-	-	75,1
	2010	70,9	-	-	-	75,6
	2011	72,9	-	-	-	75,6
	2012	72,5	-	-	-	74,8
	2013	74,2	-	-	-	74,2
	2014	75,4	-	-	-	74,6
	2015	75,3	-	-	-	73,5
	2016	72,1	-	-	-	72,8
2017	72,7	-	-	-	71,9	

*Laginaren tamainak ez du aukerarik ematen lurralde historikoaren eta adinaren aldagaiekin guruztabulatzeko.

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI), Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

2. Notario aurrean egindako salerosketa-eskriturak: etxebizitza babestuaren pisua

	Eskritura egindako etxebizitzak, guztira*	Pisuak guztira	Pisu libreak	Pisu babestuak	Pisu babestuen %/pisuak guztira	EAEko pisu babestuko guztiekiko %a
EAE						
2007	27.182	25.833	21.975	3.858	14,9	100
2008	21.382	20.043	16.274	3.769	18,8	100
2009	18.285	17.551	14.279	3.272	18,6	100
2010	24.019	23.248	19.186	4.062	17,5	100
2011	18.793	18.103	13.995	4.108	22,7	100
2012	15.398	14.854	11.302	3.552	23,9	100
2013	11.081	10.599	9.022	1.577	14,9	100
2014	14.403	13.747	11.912	1.835	13,3	100
2015	16.829	16.105	14.098	2.007	12,5	100
2016	19.109	18.254	16.528	1.726	9,5	100
2017	21.810	20.741	19.589	1.152	5,6	100
ARABA						
2007	4.678	4.184	2.466	1.718	41,1	44,5
2008	4.124	3.591	2.070	1.521	42,4	40,4
2009	3.897	3.595	1.980	1.615	44,9	49,4
2010	5.722	5.504	2.781	2.723	49,5	67,0
2011	3.509	3.308	1.796	1.512	45,7	36,8
2012	3.485	3.317	1.607	1.710	51,6	48,1
2013	1.742	1.625	1.113	512	31,5	32,5
2014	2.024	1.864	1.503	361	19,4	19,7
2015	1.957	1.740	1.485	255	14,7	12,7
2016	2.474	2.270	1.973	297	13,1	17,2
2017	3.101	2.813	2.573	240	8,5	20,8
BIZKAIA						
2007	14.182	13.575	12.105	1.470	10,8	38,1
2008	10.785	10.313	9.097	1.216	11,8	32,3
2009	8.725	8.423	7.599	824	9,8	25,2
2010	11.883	11.483	10.550	933	8,1	23,0
2011	9.139	8.784	7.649	1.135	12,9	27,6
2012	7.023	6.763	5.810	953	14,1	26,8
2013	5.516	5.273	4.813	460	8,7	29,2
2014	7.442	7.084	6.291	793	11,2	43,2
2015	9.275	8.944	7.632	1.312	14,7	65,4
2016	10.373	9.918	9.088	830	8,4	48,1
2017	11.649	11.206	10.639	567	5,1	49,2
GIPUZKOA						
2007	8.322	8.074	7.404	670	8,3	17,4
2008	6.473	6.139	5.107	1.032	16,8	27,4
2009	5.663	5.533	4.700	833	15,1	25,5
2010	6.414	6.261	5.855	406	6,5	10,0
2011	6.145	6.011	4.550	1.461	24,3	35,6
2012	4.890	4.774	3.885	889	18,6	25,0
2013	3.823	3.701	3.096	605	16,3	38,4
2014	4.937	4.799	4.118	681	14,2	37,1
2015	5.597	5.421	4.981	440	8,1	21,9
2016	6.262	6.066	5.467	599	9,9	34,7
2017	7.060	6.722	6.377	345	5,1	29,9


	Eskritura egindako etxebizitzak, guztira*	Pisuak guztira	Pisu libreak	Pisu babestuak	Pisu babestuen %/pisuak guztira	EAEko pisu babestuko guztiekiko %a
ESPAINIA						
2007	853.568	675.187	617.760	57.427	8,5	
2008	564.838	453.734	404.652	49.082	10,8	
2009	463.800	379.128	334.007	45.121	11,9	
2010	497.800	405.842	362.750	43.092	10,6	
2011	356.666	290.112	252.491	37.621	13,0	
2012	370.005	305.426	271.036	34.390	11,3	
2013	306.061	247.594	233.587	14.007	5,7	
2014	369.400	294.984	277.665	17.319	5,9	
2015	404.355	320.701	303.817	16.884	5,3	
2016	460.865	364.782	345.712	19.070	5,2	
2017	531.627	423.695	403.746	20.268	4,8	

*Eskritura egindako salerosketen guztizkoak barne hartzen ditu bai pisuak eta bai familia bakarreko etxebizitzak. Azkenotan ezin da erkidego eta lurralde bakoitzean etxebizitza libre eta babestuen artean bereizi, beraz, etxebizitza babestuen ehunekoa kalkulatzeko, eskritura egindako pisuen kopurua hartu da oinarri. Hala ere esan dezakegu, EAEn salerositako guztien % 90 baino gehiago pisuak direla eta Espainian % 80 inguru.

Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.



III. Eranskina



Metodologia-
oharrak



Adierazlea egiteko erabilitako datuen iturria

1. Etxebizitza librea jabetzan hartzearen kostua

- Notariotzaren Kontseilu Nagusiaren estatistika, notario aurrean erregistratutako etxebizitza-salerosketen prezioetarako (etxebizitza berriak eta bigarren eskukoak, barne sarturik pisuak eta familia bakarreko etxebizitzak).
- Espainiako Bankua, etxebizitza libre bat erosteko eman diren hiru urtetik gorako hipoteka-maileguren batez besteko tipoetarako.
- Jabetzaren, Ondasun Higigarrien eta Merkataritza Ondasunen Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa, Higiezin Erregistro Estatistikaren urtekarietan argitaratutako etxebizitzaren gain kontratatutako hipoteka-kreditu berrien iraunaldirako.
- Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Lan Kostuaren Hiruhileroko Estatistika (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Urteroko Inkesta (SEI) eta Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (EU-SILC), batez besteko azken soldata kalkulatzeko.

2. Etxebizitza librea erosteko gehieneko salneurri onargarria

- Espainiako Bankua, etxebizitza libre bat erosteko eman diren hiru urtetik gorako hipoteka-maileguren batez besteko tipoetarako.
- Jabetzaren, Ondasun Higigarrien eta Merkataritza Ondasunen Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa, Higiezin Erregistro Estatistikaren urtekarietan argitaratutako etxebizitzaren gain kontratatutako hipoteka-kreditu berrien iraunaldirako.
- Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Lan Kostuaren Hiruhileroko Estatistika (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Urteroko Inkesta (SEI) eta Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (EU-SILC), batez besteko azken soldata kalkulatzeko.

3. Etxebizitza librearen salneurriaren eta etxebizitza erosteko gehieneko salneurri onargarriaren arteko aldea

- Notariotzaren Kontseilu Nagusiaren estatistika, notario aurrean erregistratutako merkatu libreko etxebizitza (pisuak eta familia bakarreko etxebizitzak barne) berri zein bigarren eskuko salerosketa-prezioetarako.
- Espainiako Bankua, etxebizitza libre bat erosteko eman diren hiru urtetik gorako hipoteka-maileguren batez besteko tipoetarako.
- Jabetzaren, Ondasun Higigarrien eta Merkataritza Ondasunen Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa, Higiezin Erregistro Estatistikaren urtekarietan argitaratutako etxebizitzaren gain kontratatutako hipoteka-kreditu berrien iraunaldirako.
- Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Lan Kostuaren Hiruhileroko Estatistika (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Urteroko Inkesta (SEI) eta Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (EU-SILC), batez besteko azken soldata kalkulatzeko.

4. Etxebizitza libre bat erosteko behar den diru-sarreraren igoera

- Notariotzaren Kontseilu Nagusiaren estatistika, notario aurrean erregistratutako merkatu libreko etxebizitza (pisuak eta familia bakarreko etxebizitzak barne) berri zein bigarren eskukoaren salerosketa-prezioetarako.
- Espainiako Bankua, etxebizitza libre bat erosteko eman diren hiru urtetik gorako hipoteka-maileguen batez besteko tipoetarako.
- Jabetzaren, Ondasun Higigarrien eta Merkataritza Ondasunen Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa, Higiezin Erregistro Estatistikaren urtekarietan argitaratutako etxebizitzaren gain kontratatutako hipoteka-kreditu berrien iraunaldirako.
- Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Lan Kostuaren Hiruhileroko Estatistika (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Urteroko Inkesta (SEI) eta Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (EU-SILC), batez besteko azken soldata kalkulatzeko.

5. Etxebizitza libre erosteko gehieneko azalera onargarria

- Notariotzaren Kontseilu Nagusiaren estatistika, notario aurrean erregistratutako merkatu libreko etxebizitza (pisuak eta familia bakarreko etxebizitzak barne) berri zein bigarren eskukoaren salerosketa-prezioetarako.
- Espainiako Bankua, etxebizitza libre bat erosteko eman diren hiru urtetik gorako hipoteka-maileguen batez besteko tipoetarako.
- Jabetzaren, Ondasun Higigarrien eta Merkataritza Ondasunen Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa, Higiezin Erregistro Estatistikaren urtekarietan argitaratutako etxebizitzaren gain kontratatutako hipoteka-kreditu berrien iraunaldirako.
- Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Lan Kostuaren Hiruhileroko Estatistika (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Urteroko Inkesta (SEI) eta Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (EU-SILC), batez besteko azken soldata kalkulatzeko.

6. Etxebizitza librearen batez besteko azaleraren eta etxebizitza erosteko gehieneko azalera onargarriaren arteko aldea

- Notariotzaren Kontseilu Nagusiaren estatistika, notario aurrean erregistratutako merkatu libreko etxebizitza pisuak eta familia bakarreko etxebizitzak barne) berri zein bigarren eskukoaren salerosketa-prezioetarako.
- Espainiako Bankua, etxebizitza libre bat erosteko eman diren hiru urtetik gorako hipoteka-maileguen batez besteko tipoetarako.
- Jabetzaren, Ondasun Higigarrien eta Merkataritza Ondasunen Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa, Higiezin Erregistro Estatistikaren urtekarietan argitaratutako etxebizitzaren gain kontratatutako hipoteka-kreditu berrien iraunaldirako.
- Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Lan Kostuaren Hiruhileroko Estatistika (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Urteroko Inkesta (SEI) eta Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (EU-SILC), batez besteko azken soldata kalkulatzeko.

7. Etxebizitza librea alokatzearen kostua

- Higiezinaren Eskaintzari buruzko Inkesta, Etxebizitzaren Euskal Behatokiarena, Euskadiko alokairu-etxebizitza libreen hileko batez besteko errentaren datua lortzeko.
- Espainiako alokairu-etxebizitzari buruzko txostena, Fotocasa.es higiezinaren atariarena, Espainian alokatzen diren etxebizitzaren hileko batez besteko errentarako.
- Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Lan Kostuaren Hiruhileroko Estatistika (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Urteroko Inkesta (SEI) eta Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (EU-SILC), batez besteko azken soldata kalkulatzeko.

8. Etxebizitza librea alokatzeko gehieneko errenta onargarria

- Higiezinaren Eskaintzari buruzko Inkesta, Etxebizitzaren Euskal Behatokiarena, Euskadiko alokairu-etxebizitza libreen hileko batez besteko errentaren datua lortzeko.
- Espainiako alokairu-etxebizitzari buruzko txostena, Fotocasa.es higiezinaren atariarena, Espainian alokatzen diren etxebizitzaren hileko batez besteko errentarako.
- Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Lan Kostuaren Hiruhileroko Estatistika (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Urteroko Inkesta (SEI) eta Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (EU-SILC), batez besteko azken soldata kalkulatzeko.

9. Merkatuko alokairu-errentaren eta etxebizitza alokatzeko gehieneko errenta onargarriaren arteko aldea

- Higiezinaren Eskaintzari buruzko Inkesta, Etxebizitzaren Euskal Behatokiarena, Euskadiko alokairu-etxebizitza libreen hileko batez besteko errentaren datua lortzeko.
- Espainiako alokairu-etxebizitzari buruzko txostena, Fotocasa.es higiezinaren atariarena, Espainian alokatzen diren etxebizitzaren hileko batez besteko errentarako.
- Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Lan Kostuaren Hiruhileroko Estatistika (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Urteroko Inkesta (SEI) eta Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (EU-SILC), batez besteko azken soldata kalkulatzeko.

10. Etxebizitza libre bat alokatzeko behar den diru-sarreraren igoera

- Higiezinaren Eskaintzari buruzko Inkesta, Etxebizitzaren Euskal Behatokiarena, Euskadiko alokairu-etxebizitza libreen hileko batez besteko errentaren datua lortzeko.
- Espainiako alokairu-etxebizitzari buruzko txostena, Fotocasa.es higiezinaren atariarena, Espainian alokatzen diren etxebizitzaren hileko batez besteko errentarako.
- Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Lan Kostuaren Hiruhileroko Estatistika (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Urteroko Inkesta (SEI) eta Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (EU-SILC), batez besteko azken soldata kalkulatzeko.

11. Jabetzako etxebizitza babestu bat eskuratzeko kostua

- Notario aurrean erregistratutako etxebizitza babestu berrien eta erabilien salerosketaren prezioen estatistika, Notariotzaren Kontseilu Nagusiarena.
- Etxebide - Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua, EAEn babes publikoko etxebizitza bat eskuratzeko aplikazioaren interes-tasa efektiboetarako.
- Estatuko Aldizkari Ofiziala, «Estatuko etxebizitza eta birgaitze-plana 2009-2012» eta «Etxebizitzaren Alokairua bultzatzeko, Eraikinen Birgaitzea bultzatzeko eta Hiri-berrorenatzea eta -berrikuntza bultzatzeko 2013-2017 Estatu Plana» Espainian aplikazioaren interes-tasa efektiboetarako.
- Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Lan Kostuaren Hiru Hilean Behingo Estatistika (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Inkesta (SEI), Soldata Egiturari buruzko Urteko Inkesta (SEUI) eta Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (EU-SILC), batez besteko azken soldata kalkulatzeko.

12. Alokairuko etxebizitza babestu bat eskuratzeko kostua

- Higiezinaren Eskaintzari buruzko Inkesta, Etxebizitzaren Euskal Behatokiarena, Euskadiko alokairu-etxebizitza babestuen hileko batez besteko errentaren datua lortzeko.
- Espainiako gehieneko errenta aurreikusirako aldi bakoitzeko indarreko etxebizitzaren estatutuen planak.
- Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Lan Kostuaren Hiru Hilean Behingo Estatistika (LKHE), Soldata Egiturari buruzko Inkesta (SEI), Soldata Egiturari buruzko Urteko Inkesta (SEUI) eta Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (EU-SILC), batez besteko azken soldata kalkulatzeko.

Erabilitako iturriei buruzko metodologia-oharrak

Ikerketa honetan osatu eta aztertu dira Euskadiko gazteek etxebizitzaren merkatu librea eta etxebizitza babestuenara sartzeko dituzten ahalbide ekonomikoen azkenaldiko bilakaerari buruzko adierazleak, bai eta EAEko eta Espainako adierazleen arteko erkaketak egin ere. Baina, aurretik nabarmendu bezala, beharrezkoa da aurretiazko metodologia-lan bat gauzatzea: iturri desberdinak uztartu behar dira neurrirako esplotazioak eginez, teoria- eta metodologia-arloko zenbait erabaki hartuz, horrela, adierazleak finkatzeko datuak lortzeko.

18-34 urte bitarteko gazteen hileko batez besteko soldata garbiari buruzko datua, funtsean, zenbatespen bat da, ezin baita datu hori zuzenean lortu inolako estatistika-eragiketa ofizialetik. Etxebizitza hipoteka bidez erostearen kostuak zenbatesteko, honako datu hauek uztartu dira: Espainiako Bankuarenak, interes-tipoen buruzkoak; Erregistratzaileen Elkar-goarenak, hipoteken batez besteko iraupenari buruzkoak; eta notario aurrean erregistratutako etxebizitza-salerosketetan jasotako prezioak. Antzeko zerbait gertatzen da etxebizitza babestuekin; izan ere, ez daukagu praktikan formalizatzen diren mailegu hitzartuen ezaugarri zehatzen berri (indarrean dagoen legediak ezartzen dituen baldintza orokorrak bakarrik), eta Espainiaren kasuan ez dakigu zein den alokairuko errenta efektiboa.

Jarraian erabilitako iturrietako zer datu erauzi diren azalduko da.

1. Notariotzaren kontseilu nagusia

Datua: notario aurrean erregistratutako salerosketetan jasotako prezioa.

Oharrak: notarioko prezioa ez dator bat eskaintza-prezioarekin, tasazio-prezioarekin edo eragiketaren azken prezioarekin (balitekeelako ezer beltzean ordaindu izana); bai, aitzitik, zerga-ondorioetarako aitortzen den prezioarekin. Notariotzaren Kontseilu Nagusiaren estatistikak zuzenean ematen ditu honako datu hauek: prezioa guztira, prezioa metro karratuko eta etxebizitzaren batez besteko azalera eraikia, etxebizitza libreen, babestuen, pisuen eta familia bakarreko etxebizitzaren artean bereizirik. Etxebizitza babestuen kasuan, etxebizitza babestuen prezioa jakin daiteke soilik (ez dira barnean sartzen familia bakarreko etxebizitza babestuak, etxebizitza babestuei dagokienez gutxiengoa direlako horrelako etxebizitzak). Zenbaitetan, zuzenean ematen ez diren tipologia batzuen batez besteko balioa zenbatetsi da Euskadiko eta lurralde historiko bakoitzerako, batez bestekoen arteko diferentziatik abiatuta.

Txosten honetan, 2016ko balioak berrikusi dira, 2017an Notariotzaren Kontseilu Nagusiak eskainitako eguneratze berriarekin.

Datua: eskritura egindako etxebizitza-salerosketen kopurua, bereizirik pisu libreak eta babestuak.

2. Higiezinaren Eskaintzari buruzko Inkesta – Etxebizitzaren Euskal Behatokia

Datua: alokairuko etxebizitza libreen eta babestuen hileko batez besteko errenta Euskadin.

Oharrak: Etxebizitzak eskaintzen dituzten sustatzaileei (bost etxebizitzatik gorako sustapenak) eta higiezinaren jabetza-agenteei egindako inkesten emaitzak dira. Etxebizitza babestuaren alokairuari dagokionez, Euskadiko batez besteko balioa bakarrik argitaratu da; beraz, balio hori hiru lurralde historikoei aplikatu zaie.

3. Etxebizitzarako estatu-planak

Datua: alokairuko etxebizitzaren hileko gehieneko alokairua Espainian.

Oharrak: Etxebizitzaren Euskal Behatokiak eskaintzen duen informazioaz bestelako erant, ez dira inolako estatistikatan jaso Espainiako alokairuko etxebizitza babestuen egiazko

alokairu- edo eskaintza-prezioak. Hutsune hori saiheste aldera, etxebizitzako hainbat estatu-planek ezarritako gehieneko prezioetara jo da zuzenean (garajeak, trastelekuak eta eranskinak ez dira barnean sartu), eta etxebizitzak «goi-mailako gehieneko prezio gisa deklaraturako lurralde-eremu» bateko herri batean egoteagatik erator daitezkeen igoerak ez dira kontuan izan. 2007. eta 2008. urteetarako, 10 eta 25 urtera bitarteko oinarritzko errentaren etxebizitzaren gehieneko alokairuaren batez bestekoa erabili da. 2009-2012 aldirako, 10 eta 25 urtera bitarteko erregimen orokorreko etxebizitzaren gehieneko alokairuaren batez bestekoa erabili da. Eta, azkenik, 2013-2017 urteetarako, «errotazio-alokairuko etxebizitzaren» eta «alokairu babestuko etxebizitzaren» gehieneko alokairuaren batez bestekoa. Estatu-planak arautzen duen metro karratu bakoitzeko errenta hileko eurotara bihurtzea 50 metro karratuko batez besteko azalera erabilgarria balioztatuta egin da.

2016ko abenduaren 10ean, urtebetez luzatu zen etxebizitza babestuak sustatzeko, eraikinak birgaitzeko eta hiriak berroneratzeko eta berritzeko 2013-2016 estatu-plana⁵, baina 2017 maiatzaren 4an haren ordezkorearen zirriborroa aurkeztu zen, Estatu 2018-2021 Etxebizitza Plana⁶. Azkenik, 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Plana Arautzen duen dekretua Estatu Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2018ko martxoaren 9an eta indarrean jarri zen martxoaren 10ean.

4. Espainiako alokairu-etxebizitzari buruzko txostena – Fotocasa.es

Datua: alokairuko etxebizitza librean hileko batez besteko errenta Espainian.

Oharrak: partikularrek nahiz enpresek Fotocasa.es atarian argitaraturako bigarren eskuko etxeen eskaintza-prezioa. Bazter utzi dira apartamentuak, duplexak, loftak eta familia bakarrek etxebizitzak. Txostenak batez besteko alokairu-errenta metro karratuko ematen du soilik. Hileko ordaindu beharreko euro-kopuru osoa lortzeko, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren 2011ko Erroldan alokairuzko ohiko etxebizitzetarako jasotako azalera aplikatu da (78,23 metro Espainia osorako). Azalera hori eraikitako metro karratuak dira.

5. Espainiako Bankua

Datua: etxebizitza libre bat erosteko eman diren hiru urtetik gorako hipoteka-maila-guen batez besteko tipoak.

Oharrak: hileko balio guztien urteko batez bestekoa erabili da.

6. Etxebide – Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua

Datua: etxebizitza publikoa erostean aplika daitezkeen interes-tasa efektiboak, betiere horien finantzaketak ez badu gainditzen etxebizitzaren eta hari atxikitako prezioaren % 80, urtearen eta indarrean dagoen hitzarmenaren arabera.

Oharrak: 2005. urtearen ondorengo hitzarmenek hamabi hilabeterako Euriborrarekiko diferentzialen aldea ezarri dutenez, alde horren batez besteko balioa hartu da kontuan.

Espainian, ez dago erka daitezkeen estatistikarik. Halakorik ez dagoenez, hamabi hilabeterako Euriborra izan da kontuan, «Estatuko etxebizitza eta birgaitze-plana 2009-2012» planak ezartzen dituen gehieneko zein gutxieneko balioen batez besteko diferentziala gehituta. Egungo «Etxebizitzaren Alokairua bultzatzeko, Eraikinen Birgaitzea bultzatzeko eta Hiri-berroneratzea eta -berrikuntza bultzatzeko 2013-2016 Estatu Planak» aurreko planeko laguntzak mantentzen ditu. 2007. eta 2008. urteetarako, «Herritarren etxebizitza-eskura-

⁵ <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=B0E-A-2016-11737> [2018ko azaroaren 5ean egindako kontsulta].

⁶ <http://www.fomento.es/NR/rdonlyres/B076515B-257A-439E-9163-7694C15B9F5D/142888/BorradorRealDecreto1.pdf> [2018ko azaroaren 5ean egindako kontsulta].

pena sustatzeko estatu-plana 2005-2008» planeko urteko tasa efektiboa izan da kontuan, urte bakoitzerako Estatuko Aldizkari Ofizialak argitaratutakoari jarraikiz.

Txostenean, eguneratu egin dira etxebizitzako estatu-planen interes-tasak; izan ere, 2009. urteaz geroztik, tasa finkoak ezartzeko aukera ematen dute planek, "mailegu batetik abiatuta eta diferentzial bat gehituta. Etxebizitza Ministerioaren agindu bidez ezarriko da deialdia eta zer erakunde laguntzailerekin izenpetuko diren lankidetzeta-hitzarmenak"⁷. Zer tasa erabili erabakitzeke, etxebizitzak erosteko tasa finko eta aldakorreko maileguen proportzioa aplikatzen da, Higiezin Erregistro Estatistika urtekariak jasotakoari begiratuta (hipotesi moduan erabiltzen da etxebizitza babestuek, Espainian, hipoteka-maileguen merkatuaren portaera bera dutela, eremu horretan bederen).

7. Jabetzaren, Ondasun Higigarrien eta Merkataritza Ondasunen Erregistratzaileen Elkargoa

Datua: etxebizitzaren gainean kontratatutako hipoteka-kreditu berrien iraunaldia, Higiezin Erregistro Estatistikaren urtekarietan argitaratua.

Oharrak: etxebizitza babestuari dagokienez, 30 urteko amortizazio-epe bakarra aplikatu da. (25 urte, Espainia osorako tasa finkoko mailegu babestuetan).

8. Lan Kostuaren Hiruhileroko Estatistika (LKHE) - Estatistika Institutu Nazionala (EIN)

Datua: soldata-kostua, guztira.

Oharrak: soldata-kostuak barne hartzen ditu inoren kontura egindako lanagatik langileek dirutan eta jenerotan jasotzen dituzten hartzeko ekonomiko guztiak, bai benetan egindako lana ordaintzeko direnean, edozein dela ere ordainketa-modua, bai lanekotzat zenbatzen diren atsedenaldirak ordaintzeko direnean ere.

Barne sartu dira, hortaz, aparteko ordainsariak eta balizko gehigarriak ere, eta lau hiruhilerkoen batez bestekoa kalkulatu da.

LKHEak ez du probintzien daturik eskaintzen. Lurraldean arabera soldata-diferentziak Soldata Egiturari buruzko Inkestatik lortu dira (ikus hurrengo idazpurua).

9. Estatistika Institutu Nazionalaren Soldata Egiturari buruzko Inkesta (SEI) eta Soldata Egiturari buruzko Urteko Inkesta (SEUI)

Datua: urteko batez besteko irabazia langile bakoitzeko.

Oharrak: SEIak aukera ematen du adinaren, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera xehatzeko LKHEko batez besteko soldata. SEIa lau urtez behingo inkesta oso batek (azkenekoak 2010ekoa eta 2014koa) eta tarteko urteei dagozkien urteroko inkestek osatzen dute, zeinek zenbatespenak egiten baitituzte, Gizarte Segurantzako Afiliazio Fitxategi Nagusia, PFEZaren 190 Ereduko aitopanak eta Lan Kostuei buruzko Hiruhileroko Estatistika oinarri harturik. Urteko soldata gordinean adinaren eta sexuaren arabera dauden diferentziak, SEIkoak, LKHEko soldata-kostuaren guztizkoari aplikatzen zaizkio.

18-34 urte bitarteko gazteen guztizkoaren batez besteko soldata kalkulatzeko, hiru adin-tartean (18-24 urte, 25-29 urte eta 30-34 urte) batez besteko haztatua egin da, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera adin-tarte bakoitzean dagoen soldatadun-kopurua erabiliz.

⁷ Urriaren 12ko 2066/2008 Errege Dekretuaren 12. artikulua. <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2008-20751>
[2018ko azaroaren 5ean egindako kontsulta].

Autonomia-mailan, EINek 25 urtetik beherakoen eta 25-34 urte bitartekoen adin-taldeetarako besterik ez ditu xehatzen datuak (estatistikoki esanguratsuak direnean). Kalkulatzeko Euskadin eta hiru lurralde historikoetan 18-24 urte-arteko, 25-29 urteko eta 30-34 urteko kolektiboetako balioak, Espainia osorako ezarritako parametro berak hartu dira.

10. Bizi-baldintzen Inkesta (EU-SILC) – Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)....

Datua: soldata gordina soldata garbi bihurtzeko eredua.

Oharrak: EU-SILC Europar Batasun osoan egiten den inkesta bat da, zeinak biztanleriaren bizi-baldintzak aztertzen baititu, maila generikoan (osasuna, hezkuntza, etxebizitza, lana, diru-sarrerak, familia-harremanak...).

Inkestaren ataletako batean, "soldatadunen errenta monetario edo kuasimonetario garbia eta gordina" jasotzen da, beti elkarrizketaren aurreko urteari dagokiona.

Errenta monetario edo kuasimonetarioa LKHEko soldata-kostuaren kontzeptuaren antzekoa da oso: enplegu-emaileak soldatapekoei ordaindu beharreko sarien aldagai monetarioari egiten dio erreferentzia. Barne hartzen du soldatapekoak (edo enplegatzaileak, haren izenean) gizarte-aseguruen sistemei nahiz agintaritzak fiskalei ordaindu beharreko gizarte-kotizazio eta errenta-gaineko zerga guztien balioa⁸. EU-SILC inkestaren argitalpen bakoitzean (2007-2017), errenta gordinaren eta garbiaren arteko aldea kalkulatu, eta errenta monetario garbiaren edo kuasimonetario gordinaren deziletan banatzen da. Beraz, soldata gordina soldata garbi bihurtzeko, soldata-tarteen arabera hamar bihurtzeko-koefiziente daude eskuragarri.

Txosten honetan erabili den batez besteko azken soldata kalkulatzeko, SEIko adinaren eta sexuaren arabera diferentziak aplikatu zaizkio LKHEko soldata-kostuari, eta euro garbien zenbatekoa lortzeko bihurtzeko-koefizientea esleitu zaio; hain zuzen, EU-SILC inkestako errenta monetario edo kuasimonetarioaren dezilaren arabera dagokiona.

EU-SILC ikerketaren datuak, soldatei eta errentari dagozkionak, hain zuzen ere, elkarrizketak egin aurreko urtekoak izaten dira. Beraz, 2017ko edizioan 2016ko datuak eguneratu dira eta, horiekin batera, beren kalkuluetan datu hauek kontuan hartzen dituzten adierazleak (hala nola, etxebizitza eskuratzeko kostuak edota gehieneko salneurri edo errenta onargarriak). Bestetik, 2017 urteari dagozkion soldatak behin-behinekoak izango dira, 2019an 2018ko EU-SILC argitaratu arte.

11. Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI) – Estatistika Institutu Nazionala (EIN)....

Datua: 18-34 urte bitarteko pertsona emantzipatuak.

Oharrak: emantzipatutzat jo dira inkestan «erreferentziazko pertsona», «erreferentziazko pertsonaren ezkontide edo bikotekide» eta «erreferentziazko pertsonarekin ahaidetasunik gabeko pertsona» gisa jasotakoak. Erabilitako BAI edizioa EINek 2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan oinarrituta argitaratzen duena izan da.

EAEko lurralde historikoetarako, erkidego osoari dagokion "ahaidetasunik gabeko pertsona" proportzioa erabili da.

⁸ ESTADÍSTICA INSTITUTO NAZIONALA. Bizi-baldintzen Inkesta. Metodologia. Madril: 2011, 46. or.
Eskuragarri http://www.ine.es/daco/daco42/condivi/ecv_metodo.pdf helbidean [Kontsulta: 2018ko azaroaren 5ean]